



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

Arreta soziosanitarioaren kalitatezko kudeaketa Euskal Herrian

2026ko otsailetik martxora

ESKAINITAKO PLAZAK
100

MODALITATEA
Online

HIZKUNTZA
Euskara eta Gaztelania (bakoitzak aukeratzen duen hizkuntzan)

KREDITU KOPURUA
3 ECTS Kreditu

PREZIOA
90 € inguru

IRAKASLEKUA
*EHU*on irakaskuntza plataforma

1. Hasiera

a. Tituluaren gakoak

Arreta soziosanitarioa herritarren oinarritzko eskubidea izateaz gain, pertsonen bizitzaren alderdirik intimo, erabakigarri eta garrantzitsuenei lotuta dago. Gizartearen bizi-kalitatearen eta ongizatearen funtsezko oinarrietako bat da.

Mikrokredentzial honen helburu nagusia da arreta soziosanitarioaren kalitatezko kudeaketaren inguruko berariazko prestakuntza eskaintzea, arreta berezia eskainiz euskarari.

Mikrokredentzial honek Euskal Herriko sistema soziosanitarioaren behar eta helburuei erantzun egokia emango dieten profesionalak prestatuko ditu. Ikasleak kalitatezko jarduera soziosanitarioan pazientearen hizkuntzak eta kulturak duten garrantziaz jabetuko dira, eta, aldi berean, ezagutzan oinarrituriko gaitasunak erdietsiko dituzte, euren ibilbide profesionalean jarduera egokiak bermatzeko.

Prestakuntzak 3 ECTS kreditu ditu, 6 aste iraungo ditu, eta bi modulutan banatuta dago (*Jarduera soziosanitarioa, kalitatea eta kudeaketa* eta *Kalitatezko kudeaketa linguistikorako estrategiak*). Eskolak on-line modalitate asinkronoan emango dira EHUon plataforman.

b. 4 arrazoi titulu hau aukeratzeko

- ✓ Mikrokredentzial honetan pazientearen hizkuntzak kalitatezko arreta soziosanitarioan duen rol zentrolean azpimarra jartzen delako.
- ✓ Mikrokredentzial honek eremu profesionalean hizkuntza-kontzientzia lantzeko esparru akademikoa eskaintzen duelako.
- ✓ Eremu soziosanitarioan garapen profesionalerako baloratuko den unibertsitate mailako ziurtagiri akademikoa lortzen delako.
- ✓ Modu erosoan, etxetik, edozein ordutan, online egin daitekelako.

c. Irteera profesionalak

Sistema soziosanitarioko arlo ezberdinetarako.

2. Programa

a. Eskola orduak

Ikastaroak 6 aste iraungo du 2026ko otsailaren 16tik martxoaren 27ra.

Astero ikasgai bi eskainiko dira eta 5 orduko dedikazioa aurreikusten da. Astelehenero ikusaraziko da *EHUon* plataforman gai berriaren atala.

Eskola guztiak online era asinkronoan izango dira, hau da, bakoitzak nahi duen eguneko momentuan egin ahal izango ditu eskatutako zereginak. Asteko irakasgaiaren arduraduna izango den irakaslearen tutoretzak mezu bidez egin ahal izango dira. 2., 4. eta 6. asteetako azken egunean (ostirala) online saio sinkrono bat egingo da (online aurrez aurre) zalantzak argitu eta gakoak diren gaiak eztabaidatzeko.

b. Ebaluazio prozedurak

- ✓ Irakasleak irakasgai bakoitzerako planteatutako zeregina (aukera anitzeko galdetegia, foroko eztabaida edo ebazteko ariketak): %100

c. Programa

Gaia	Hizkuntzak	ECTS	Mota
Moduloa: Jarduera soziosanitarioa, kalitatea eta kudeaketa			
Osasun jardueraren paradigmak praktika klinikoan eta asistentzian	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Osasun arretaren eta zaintzaren kalitatea	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Osasun profesionalaren (medikuaren) oinarritzko gaitasunak	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Rudeaketa linguistikoa eremu publiko soziosanitarioan	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Aniztasun linguistikoa	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Euskara eta genero ikuspegia osasun arretan	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Moduloa: Kalitatezko kudeaketa linguistikorako estrategiak			
Hizkuntza beharrak eta eskaintza aktiboa osasun arretan	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Pazienteak hautemandako emaitzen neurketa	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Zirkuitu elebidunak osasun arreta espezializatuan	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa

Galdetegen baliozkotzea	Euskara Gaztelania	0,25	Nahitaezkoa
Euskarazko osasun terminologia espezifikoaren lanketa	Euskara Gaztelania	0,50	Nahitaezkoa

3. Irakasleak

UPV/EHUKo irakasleak:

Zubia Olaskoaga, Felix
Fernandez Maiztegi, Covadonga
Orive Calzada, Miren
San Martin Egia, Itziar
Elezgarai Gabantxo, Izaskun
Zarate Sesma, Jon

UPV/EHUKoak ez diren irakasleak

Montes Lasarte, Aitor
Berridi Agirre, Maialen
Lekuona Zabala, Arantza
Uranga Arakistain, Belen
Martinez de Lahidalga Azkue, Saioa
Santamarina Renteria, Iñaki

4. Matrikula

Prezioa: 90 € (laster egin ahal izango da matrikula UIKren webgunean:
<https://www.uik.eus/eu>).

Profil gomendagarria

Arlo soziosanitarioan lanean ari den edozein pertsona, ez dio axola espezialitateak, nahiz eta batez ere osasun arloko lan-espezialitateentzako egokiagoa izan. Dena den, beste arloetako profesionalentzako ere egokia da mikrokredentziala.

Titulazio gomendagarriak

Arlo soziosanitarioko edozein titulazio (unibertsitarioa zein ez-unibertsitarioa): erizaintza, medikuntza, farmazia, psikologia, fisioterapia, odontología, gizarte langintza, soziologia, Dena den, beste titulazioetako profesionalentzako ere egokia da mikrokredentziala.

Hautatzeko irizpideak (baldin eta 100 plazak baino eskari gehiago balego)

Titulazioaren egokitasuna: %90

Gaian esperientzia profesionala: %10